




URUMEAKO kronika

2018/08/10



PDF

HERNANI Abuztuak 10



albiste//TURISMOA

Urumea bailarako altxorrak ezagutzea, opor hauetarako denbora pasa

Behemendi elkarteak Donostialdean turismoaz gozatzeko hainbat gomendio egin ditu; horien artean, Chillida Leku edo Hernaniko kaxkoa ezagutzea, Sagardoetxeara bisita edota erremontean jokatzeta.

HERNANI ASTIGARRAGA EREÑOTZU ARANO GOIZUETA

2018/08/01 08:47 Asteazkena

Uda garaian, urrutiko altxorak bilatzen tematu beharrean, oporrak gozatzeko beste modu bat proposatu du Behe-mendi elkarteak: gertuen dauzkagun altxorak, Donostialdeako landa eremuan daudenak, ezagutzea. Urumea bailaran aurki daitezke batzuk.

Kirola, natura eta kultura, sagardoarekin

Proposamenetako batzuk Astigarragako Sagardoetxea museoa edota Hernani eta Astigarragako sagardotegiak bisitatzeari buruzko helburu, baina beste ekintza batzuekin uztartuta.

Batetik, *Sagar Bike* proposatu da: Donostiako Sarriegi Plazan elkartu, mapa jaso, eta Urumea ibaiaren ertzeko bidegorrian barrena Astigarragara joatea. Ondoren, Sagardoetxea museoan bisita gidatua eta pintxo eta edari dastaketa egin ahal izango dira.

Beste kasu batzuetan, museoaz gain, sagardotegi batean bazkaldu edo afaldu eta Donostiako Aquariuma bisitatzeari buruzko proposatzen da, edo itsasontzian Trintxerpetik abiatu eta Albaolako Itsas kultur Faktoria bisitatzeari buruz. Orduetegi, prezio eta xehetasunen berri jakin eta erreserbak egiteko: 943 55 05 75/ www.sagardoarenlurraldea.eus.

Bestalde, uda hasieran Sagardo Tour aurkeztu zuen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek. Kasu hauetan, sagardotegi batean bazkaltzeko aukera ematen da, 11:15etan abiatutako bisita bukatzeko. Bisita horietan ezagutu ahal izango dira Tolosako Zerkausia, bertako produktuen azoka; Idiazabal gaztandegia; Albaola Itsas Kultur Faktoria; edo Flyscharen ibilbidea. Zehaztutakoen artean, Hernaniko Iparragirre sagardotegian bazkaldu ahal izango da abuztuaren 18an, Tolosako bertako produktuen azoka bisitatu ondoren, eta Astigarragako Astarben, irailaren 1ean, Albaolan izan ondoren. Informazioa eta erreserbak: www.sagardoa.eus / 943 33 68 11.

Hernanin, erremontea, Kaxkoa eta Chillida Leku

Bestelako ekintzak ere proposatzen dira, eta batzuk, Hernanin. Batetik, doan eta erreserbatu beharrik gabe, bisita gidatua egin daiteke Kaxko historikoan barrena; orduetegien berri: turismoa@hernani.eus / www.hernaniturismoa.com.

Bestetik, Galarretako kantxa zapaldu, zesta eskuan jarri eta bertako erremontistekin eta artisauekin jokoarekin lotutako guztia ezagutu eta praktikatu daiteke, ostegun eta larunbatero. Ondorengo partidua ikusteko aukera ere izaten da. Informazioa: 943 55 10 23 edo www.galarreta-jaialai.com.

Arteari lotuta, berriz, gogorarazi dute Chillida Leku itxita egon arren, aurretik erreserbatuz gero bisitatu daitekeela: 943 33 59 63, info@eduardochillida.com, visitas@eduardochillida.com, www.museochillidaleku.com.

Kaiak edo bizikleta, Orian edo Leitzaranean

Ingurura pixka bat zabalduta, berriz, aukeran dira Leitzarango uraren interpretazio zentroa, bizikletan edo oinez ibilbideak eta pintxo potea, edo Oria ibaiaren jaitsiera kaiak, edo marinel eta baleazaleen istorioak ezagutzeko.

TURISMO ESKAINTZA

SAGARDOETXEA

- Sagar Bike, Sagardoa eta itsasoa Aquariumean, Sagardoa eta itsasoa Albaolan, Sagardoetxea eta sagardotegia.
- Informazioa: 943 55 05 75 / www.sagardoarenlurraldea.eus

SAGARDO TOUR

- Bertako Produktuen Azoka, Idiazabal JDB Gaztandegia, Albaola Itsas Kultur Faktoria edo Flyscharen Ibilbidea eta sagardotegia.
- Informazioa: 943 33 68 11 / www.sagardoa.eus

HERNANIKO HIRIGUNE HISTORIKOA

- Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 17:00-20:00. Igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00. Astelehenetan itxita.
- Informazioa: turismoa@hernani.eus / www.hernaniturismoa.com

ERREMONTA GALARRETAN

-Ostegunero eta larunbatero, 14:45etatik 16:30etara. Ondoren, partiduak.

-Informazioa: 943 55 10 23 / www.galarreta-jaialai.com

CHILLIDA LEKU

-Itxita, baina erreserba eginez gero, bisitatzeko aukera.

-Informazioa: 943 33 59 63 / www.museochillidaleku.com / visitas@eduardochillida.com / info@eduardochillida.com

PLAZAOLA-LEITZARAN BAILARA

-Uraren interpretazio zentroa, ibilbide gidatua eta pintxo potea; Oinezko tourra Bide Berdetik eta pintxo potea; edo MTB tourra Bide Berdetik eta pintxo potea.

-Informazioa: 943 30 09 29 / www.leitzaran-andoain.eus / info@leitzaran-andoain.eus

AGINAGATIK ORIORA, ORIA IBAIAN

-Kaiak jaitsiera abuztuaren 5, 7, 9, 12, 19, 21, 23, 26 eta 28, eta irailaren 4, 9 eta 16an. Edo bestelako jarduerak: arraun pote, Big Sup...

-Informazioa: 657 79 46 77 / info@begi-bistan.com

 Atsegin dut 5

 Whatsapp

 Emaila

 Inprimitu

IRUZKINAK